

Aldaketa politikoa gauzatzeko borondatea eta konpromisoa

Hurrengo lerroetan, Erakundeak, askapen prozesuaren perspektiba aintzat harturik, azken hilabeteetan abiatutako ekimenaren zioak aztertuko ditugu.

ETAK, historikoki egin duen gisan, askapen prozesuaren gaineko hausnarketa etengabea burutzen dihardu. Gure herriaren egoera aztertu eta askatasunaren bidean aurrera urrats berriak emateko baldintzak eta aukerak ahal bezainbeste profitatzea eta sustatzea baita bere xede nagusia. Hausnarketa horrek, bistan denez, borroka armatuaren erabilera eta ekarpena biltzen du. Zentzu horretan ulertu behar dira ETak azken urtean harturiko erabakiak eta abian jarritako ekimenak: askapen prozesuaren irakurketa historikotik abiatuta, Euskal Herria bere buruaren jabe izateko garai politikoa bultzatu eta hauspotzea.

ETAREN ERABAKIAREN MUINA

Asko hitz egin da, handik eta hemendik, ETaren erabakien muina. Gehienetan ekimenaren izaera eta irismena desitxuratzeko asmoz. Ahultasunarekin lotu dute batzuek, garaien polizia-laren ameskeria salitzeko asmoz. Ezker abertzaleak hartutako erabakiek behartuta izan dela dio beste zenbaitek, ETA gogo txarrez ari dela irudikatu nahian. Bada ere, lotsagabeki, ibilbide historiko oso baten porrota dela aipatu duenik. Noiz eta, nabarmena denean, ezker abertzale osoaren eta herritar ugariaren ahalegin mardulari esker izango ez balitz Euskal Herria galbidean egongo litzate-

keela aspaldi. Eta ez da falta, maltzurkeriaz, ezker abertzalea hauteskunderetan egoteko asmoarekin lotu duenik.

Argudio horiekin guztiekin, nor bere burua zuritu nahian dabil, eztabaida politikoa desbideratzeko eta une historikoak eskatzen dituen ausardiari eta erantzukizunari izkin egiteko asmoz.

Irakurketa interesatuen gainetik, ETaren erabakiak hamarkadotan egindako ibilbidearen gainean hartuak izan dira, askapen prozesuaren garapenaren segida gisa eta berau bururaino eramateko xedez. Hori dago, eta ez besterik, gure erabakien atzean: egungo egoera politikoak eskaintzen dituen baldintzak oinarri harturik, askapen prozesuan urrats erabakigarri eta atzeraezinak ematea. Hots, egungo ukazio eta zapalkuntza egoeratik aldaketa politikoa eta soziala gauzatzeko urratsa ematea.

ETAREN HAUSNARKETAN BI ALDAGAI NAGUSIK ERAGIN DUTE:

Batetik, azken hamarkada luzeetan Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren borroka eta bere militanteen eskaintzaren ekarriak eskuratu dituzten lorpenak eta sortu dituzten baldintza politikoak.

Espainiako konstituzioa eta Moncloako estatutuak onartu zirenetik hiru hamarkadetar, hauek, Euskal Herriaren nahiak ase ez eta berau egi-

turatzeko abertzaletasunaren parte batek urratutako bidea antzua eta etxekalderako erakutsi da: Euskal Herriaren zatiketa eta herri zutoinak urtzeko tresna gisa agertzen joan zaizkigu.

Abiapuntu horretatik bi baldintza politikoa nagusi sortzen dira: Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidearen jendarteratzea, batetik, eta gatazka politikoa bide politikoa eta era elkarriketatuan konponatzeko herri nahia, bestetik.

Horiekin batera, jendarte sektore garrantzitsu baten, hots, Ezker Abertzalearen borrokarako grina eta determinazioa ageri dira. Bai eta ere burujabetzan oinarritzen den abertzaletasun edo jendarte sektore kritikoa erroto bat.

Bestetik, orain arteko egoeran askapen prozesuak, ez aurrera ez atzera, blokeatzeko zuen arriskua. Hori da Espainia eta Frantziako estatuek bilatzen zuten helburua. Ezker abertzalea errepresio latzenaren zurrundiloan itoarazi nahi zuten, zokoraturik eta aldaketa politikoa eta sozialean eragiteko gaitasunik gabe utziaz.

Estatuok ofentsiba politikoa eta errepresibo sakona bideratzen ari diren bitartean, Euskal Herriaren aldeko indarrak barreiatu egon dira, barne ezadostasunetan katramilatua eta etsipenak eragindako lozorroan, beste zenbaitenen kasuan. Horrela Eus-

kal Herria beste eszenatoki batera eramateko inziatiba itxaron gelan zegoen, urteetako borrokak sortu dituen baldintza politikoak usteltzeko arriskuan utzia. Noiz eta, Euskal Herriaren etorkizuna bermatuko duen aldaketa politiko eta sozialaren premia inoiz baino nabarmenagoa denean.

Alta, ezker abertzaleak egoeraren irakurketa egokia egiten asmatu zuen eta, bere inziatibaz, egoera iraultzeko aukera abian jarri zuen. Horrekin batera, prozesu demokratikoaren aldeko hautua egin zuen, gatazka politiko konponbidean jartzeko eta aldaketa politiko gauzatzeko tresna demokratiko gisa.

Hausnarketa horren baitan kokatzen da ETAren ekimena. Euskal Herriaren askapen prozesuan urrats erabakigarriak emateko tenorean gaude eta gure herriari askatasunaren bidean aukera berriak ireki behar zaizkio. Herriarekiko konpromisoari eta bere zeregin historikoari utsiz hartu du, beraz, ETAk bere erabakia. Gatazka politikoari behin betiko konponbide demokratikoa eman dakion eta Euskal Herriaren indar guztiak askatuz, askatasunaren bidea zeharkatzeko ikusmiran.

Garai politiko berriari erreparatuz, aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko ahalik eta indar gehienaren metaketa eta bidea egitea ezinbestekotzat hartzen dugu. Hortaz, baldintza eta aukera horiek biderkatzeko eta Euskal Herriari gehiengo politiko eta sozial berriak hezurmamitzeko norabidean kokatu behar den urratsa da.

ETAk, azkenik, gatazka politikoari behin betiko konponbide demokratikoa emateko aukera erraztu du, ziklo oso bat ezaugarritzen duen konfrontazio armatua gainditzeko konpromiso argia erakutsiz.

Euskal Herriari eta nazioarteari zuzendutako ekimena

ETAren Adierazpena Euskal Herriari

Azken hilabeteotan, Bruselatik Gernikara, mundu mailako izen handiko pertsonalitateek eta euskal eragile politiko eta sozial andanak, mendeetako gatazkari konponbide justu eta demokratikoa ematearen beharra nabarmendu dute.

ETAk bat egiten du. Konponbidea elkarrizketa eta negoziazioa lanabes eta euskal herritarren borondatea iparrorratz duen prozesu demokratikoaren bidez etorriko da.

- Prozesu demokratikoak ukazio egoera eta eskubide urraketa oro gainditu behar du eta gatazka politikoaren muinean dauden lurraldetasuna eta autodeterminazioaren gakoei erantzun behar die.

- Euskal eragile politiko eta sozialei dagokie Euskal Herria eta erabakitzeko eskubidearen aitortzaren formulazioa adosteko akordioak erdiestea, proiektu politiko guztiak ahalazko eginez, Independentzia barne.

- Prozesuaren buruan, euskal herritarrek beren etorkizuna inolako muga eta esku-sartzerik gabe hautatzeko hitza eta erabakia izan behar dute.

- Alde orok, erdietsiko diren akordioak eta euskal herritarrek erabakitakoa errespetatzeko konpromisoa hartu behar du, horretarako berme eta bitartekoak ezarri.

Honenbestez:

Nazioarteko komunitateak egiaztatu ahaliko duen su-eten iraunkor eta orokorra adieraztea erabaki du ETAk. Horixe da behin betiko konponbiderako prozesuarekiko eta konfrontazio armatuaren amaierarekiko ETAk duen konpromiso irmoa.

Erantzukizun historikoarekin jokatzeko garaia da. ETAk, Espainia eta Frantziako agintariei dei egiten die, errepresio neurri oro indargabetu eta Euskal Herriarekiko ukazioa behin betiko alboratu dezaten.

ETAk, prozesu demokratikoa sustatzeko eta burura eramateko ahaleginean eta borrokan etsi gabe jardungo du, Euskal Herriari egiazko egoera demokratikoa erdietsi arte.



ETAren ekimenak bi hartzaila nagusi izan ditu:

Euskal Herria, euskal herritarrek eta euskal eragileak izan dira batik bat ekimenaren xede. Askapen prozesuan urrats berriak emanez, aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko mugimendu oro babestu, egonkurtu eta azkartzeko eta estatuekiko konfrontazio politikoak areagotzeko.

Nazioartea: prozesu demokratikoa-
rekiko konpromisoa adieraziz, nazioarteko komunitatea gatazka politikoaren konponbide demokratiko globalean bete betean sartu eta erreferentzia handitzeko. Eta ondorioz, nazioartetik presioa bideratuz, estatuaren blokeo posizioan higadura eragiteko. Ezin ahaztu, bestalde, Bruselako Adierazpenaren eskaera zehatza egin zitzaioala ETARI eta beroni erantzun positiboa eman zion ETAK.

ETAren ekimenaren bila- kaera

ETAk, 2010eko otsailean eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuen. Ekimenaren zentzua azaltzen duen hausnarketatik, ezker abertzaleko antolakunde, egitura eta militantziaren eztabaidaren testuinguruan eta Euskal Herrian ematen ari ziren urrats eta konpromisoak

kontuan izanda, erabakiaren lehen urratsa izan zen. ETA, modu mailakatu joan da urratsak egonkortzen eta aukera berriak zabalitzen.

Eraso ekintza armaturik ez egiteko erabakia isilpean egon zen hila-beteetan. Horrekin, eztabaida politikoa desitxuratzeko ekidin eta protagonismoa urratsak ematen ari ziren eragile politiko eta sozialengan jar-tzea lortu nahi zen. ETAK, jadanik, prozesu politikoak hauspotzeko jarre-ran kokatu zuen bere burua.

Hurrengo hilabeteetan, ezker abertzalearen ekimen politikoari esker, Euskal Herriko hainbat eragile eta oro har euskal herritarren aktibazio eta metaketan zein nazioarteko eremuan urrats esanguratsuak gauzatu joan ziren: eremu independentistaren artikulazioan, Aberrri Egun masiboa eta indar independentisten arteko akordio estrategikoa gauzatu ziren. Eskubide zibil eta politikoen aldeko masa soz-iala metatzen hasi eta herri inizatiba loratzen hasi zen Adierazi EH ekime-narekin. Eta mundu mailako perso-nalitate ezagunek Bruselako Adieraz-pena ezagutzera eman zuten.

Bitartean, Espainiako Gobernuaren jarrera bestelakoa izan zen. Euskal Herriatik eta nazioartetik proze-su demokratikoa egituratzeko urra-

tsak eta eskakizunak areagotu ziren unean eta ETAK bere erabakia isil-pean zuen tartean, ukazioarekin, atxi-loketekin, torturarekin, espetxera-tzeekin eta euskal preso politikoen kontrako jazarpen estuarekin segitzen zuen. Ate guztiak itxita.

Espainiaren itxikeriaz jabetuta ere, Euskal Herrian gehiengo berriak artikulatu eta indarren metaketa eta aktibazioaren bidez fase politiko ber-ria zabalteko, Euskal Herria eta estatuaren arteko konfrontazioaren di-mentsiorako emandako urratsei ba-lore handia ematen die ETAK. Hone-nbestez, 2010eko irailean hartua zuen erabakiaren berri eman zien euskal jendarteari eta nazioarteko komuniteari. Prozesu demokratikoa eraikitzeko ordu arteko mugimenduak egonkurtu ez ezik, bultzada berri bat eman eta norabide horretan aukera politiko berriak ireki zituen, gatazka politikoak gainditzeko prestutasuna eta borondatea argi adieraztearekin ba-tera.

Gatazka politikoak gainditzeko aho-tsak gure mugen barnean eta kan-poan areagotu arren, Espainiako Go-bernuak errezeta zaharrei eutsi zien. Harago joan beharra dago: konpon-bide demokratikoari uko egitea gutxi ez eta zabalitzen ari zen garai berria





sasiz eta laino beltzez betetzea baino ez zuen helburu. Ordu arte eta gero, ETAren urratsei emandako erantzuna arduragabea eta beldurrez josia izan da. ETArekin elkarrizketa eta negoziazioei ekin eta prozesuak behar dituen gutxieneko demokratikoen ezarpenean murgildu beharrean, elkarrizketari eta aterabide demokratikoei ateak ixteko jarrerarekin, garbi ageri da gatazka politikoaren konponbidearen alde nor dagoen eta nor ez. ETAk, ezaren gudan daudenen aurrean, baietza

sortu du beste behin ere.

ETAren erabakiak fokuak Espainiako Gobernuari begira jartzea eragin zuen. Euskal Herrian indar gehiago metatu eta nazioartetik ere demanda berriak egiten hasi zitzaizkion. Erabakiak, gatazka politikoa gainditzeko alde anitzeko konpromisoen beharra azkartu zuen, Anonetan finkaturiko eskema indartuz eta estatua, gatazkaren parte nagusietakoa den heinean, prozesuan murgildu behar denaren aldarria areagotuz.

Espainia itxita dago. ETAk gure herrian indartzen joan diren baldintzei eta nazioartearen inplikazio gogoari erreparatu die. Espainiako Gobernuaren jarrera egunetik egunera gure mugen barnean eta kanpo, ulertezin eta argudiaezeinagoa izan da. ETAren borondateak eta estatuaren itxikeriak, Euskal Herrian indar gehiago metatu eta nazioartetik urrats berriak ematea ahalbidetu zuen. Aterabide demokratikoa marraztu eta bultzatzeko Gernikako Akordioan indarrak bildu eta antolatzeko urratsa eman zen. Herriarren mobilizazioan, eskubide zibil eta politikoen alde, torturaren aurka eta euskal preso politikoen eskubideen defentsan manifestazio erraldoiak.

ETAk, Euskal Herriko eragile sozial, sindikal eta politiko andanak eta nazioarteko komunitateak egingdako hausnarketekin bat egin du, prozesu demokratikoa egituratzeko gutxieneko demokratikoen konpromiso argia erakutsiz. ETAk, era berean, orain arte eman diren urratsei joko zelai berrietan murgiltzeko ate zabalak ireki ditu, hots, gure Herriko indarrak antolatu eta egituratu eta estatuekiko konfrontazioa herri gisa modu eragingarrian burutzeko.